




FUNTSEZKO JARDUERAK

PRODUKZIOZKO JARDUERAK

Gure enpresak behar kultural bat betetzen du. Salerosketarako edota elkar-trukerako liburuak eskaintzea errazten dugu web orria baten bidez. Beraz, gure enpresaren funtzioa bere osotasunean zerbitzu bat eskaintzea da. Horregatik, ez dugu produkziozko ezta aktiboen salbentarik ere.

ARAZO - KONPONKETAKO JARDUERAK

Gure konpromisua kontsumitzaileekin finkoa da. Horregatik ahal dugun guztia egingo dugu bezeroak pozik mantentzeko. Dena den, gerta daiteke erabiltzaileek desadostasunak garatzea gure funtzionamenduarekiko, edo bestelako arazoak izatea. Horregatik, hainbat baliabide jarri ditugu beraien eskuetara:

- Iruzkinak. Web orrian atal bat bideratuta dago erabiltzaileen iritzietara. Horrela, orrialdea hobetzeko ideiak gurekin partekatu ahal izango dute. Guk pertsonalki irakurriko ditugu iruzkinak eta hoberen erantzuten saiatuko gara.
- 
- E-mail. Bezeroek modu pertsonalago batean zerbait esan nahi badigute, e-mail helbide bat izango dute eskura edozein arazo edo iritzi gurekin komentatzeko. Baita ere, gurekin proiektu, kanpaina edo bestelako komertzial izaerako proposamena azaldu nahi badigute (bai erabiltzaileek zein enpresek), beste helbide bat egongo da beraien eskura. Proposamenak aztertuko ditugu eta pertsonalki erantzungo ditugu.
- 
- Sare sozialak. Jende asko oso aktiboa dago sare sozialetan eta orri hauetan enpresako kontu bat sortzea beharrezkoa ikusi dugu. Sare hauetan web orria promozionatzeaz gain, internauten galderak eta kontsultak erantzungo ditugu. Bestalde, web orrian edozein arazo teknikorik sortzekotan, sare sozialen bidez komunikatuko dugu.
- 


Hauek dira eskura egongo diren baliabide guztiak. Denborarekin, beharrezkoa ikusten badugu, telefono zenbaki bat eskainiko dugu. Guretzat bezeroak oso

garrantzitsuak dira eta lan hobezina egin nahi dugu, haiei zerbitzu eraginkor bat eskaintzeko.

SAREKO JARDUERAK

Gure balorezko proposamen osoa interneteko plataformetan oinarritzen da. Liburu-trukea gure web orrian jarduten da. Hasieran, orria konposatuko da hainbat sekziotaz:

- Hasiera. Alde honetan, eskainitako azkenengo liburuak agertuko dira eta bilatzaile bat egongo da beste liburuak aurkitzeko.
- Liburuak. Trukatze edo saltzeko prest dauden liburuek izango dute banako atal bat. Atal honetan liburuaren berri laburra, portada, informazio teknikoa (hizkuntza, autoreak, argitaratze data, argitaletxea...) eta azkenik, liburua trukatu edo salduko duen erabiltzaileen izenak.
- Autoreak. Idazleek ere izango dute beren tokia. Beraien atalean, biografia (jaiotze data, jaiotze tokia, informazio laburra, hau da, ikasketak, joera ideologikoa etab. eta, behar bada, zendu zen data), beraien argazkia eta bibliografia agertuko dira.
- Erabiltzaileak. Alde honetan, erabiltzailearen fitxa teknikoa agertuko da. Fitxan emango den informazioa hurrengoa da: jaiotze data, bizi-tokia, beraien argazki bat (opzionala), irakurritako liburuak eta eskainitako liburuak. Informazio guzti hau ez da agertuko erabiltzaile-kontua pribatuan konfiguratu bada. Modu honetan, bakarrik erabiltzaile-izena eta eskainitako liburuak agertuko dira beste erabiltzaileen artean.



Denborarekin eta proiektuak arrakasta nahikoa lortzen badu, liburuak kapitulokako iruzkin atal bat izatea nahiko genuke. Geroago, iruzkin atala ebook-ekin integratzeko plana dugu.

Beste alde batetik, funtsezko beste jarduera plataforma desberdin batean aurkituko da, sare sozialetan, alegia. Sare hauek Instagram, Twitter eta Facebook izango dira. Hots, gazteek gehien erabiltzen dituzten plataformak. Baita ere, *booktuber* fenomenoari buruz kontzientekak gara. Booktuberrek *YouTube*-n liburuei buruzko

bideoak txertatzen dituzte. Booktuber hauekin lortu nahi duguna promozioa da. Hau da, konpentsazio baten truke haiek bere bideoetan gure orrialdeari buruz hitz egitea.

Azkenik, liburutegiekin eta posta-enpresekin hitz egin nahi dugu, beren prestakuntzak eskusiboki erabiltzearen eta publizitatea jartzearen truke, beraien lanaz komisia ateratzeko.

Hauek dira gure funtsezko jarduerak. Espero dugu enpresa aurrera eramatea hau eginez. Oso garrantzitsua da era egokian jokatzeko izen ona hobetzeko eta bezero gehiago erakartzeko, batik bat.